

NAZIOA ETA ESTATUA

Emilio Lopez Adan, *Beltza*

ZEHATZ, III.1 1980ko urtarrila.

Gure munduan, nabarmena da kulturak berezitzen dituen herri ezberdinez osaturik dela jendedia. Noski, kultura aipatzerakoan ez naiz kultura kosmopolita idatziaz ari, eguneroko biziera moldatzen duten mundu eta gizarte ikusmoldeei buruz baino: kulturaren kontzeptu hau aski lanbrotzua gertatzen ahal da, bitzta berarekin nahasten da askotan, baina guztiz erabilgarria da. Naturarekiko harreman produktibo eta ideologikoaz, gizarte barne araudiaz, erlijioaz edo mitologiak, hizkuntzaz ere osatzen da herri bakoitza berezitzen duen kultura hori; gizarte industrial eta kosmopolitatik at diren edo ziren herrietan askoz nabariagoa da ezberdintasun kulturala, mende honetako kapitalaren mundializazioak non-nahi inposatzen baititu produkzio molde estereotipatuak eta haiekin sasi-kultur bat, denentzat berdintsua.

Eman dezagun inongo definizio zehatz eta laburrak ezin dezakeela herrien arteko berezitasunaren kontu osorik eman, baina onar dezagun ere herri ezberdinen existentzia gauza nabarmena dela historian zehar eta gaur egun ere aktualitatea duela.

Alderantziz, herrien arteko berezitasunak ez du betidanik nazio-estatuaren forma hartu. Gertaera historikoa da nazio-estatua. Jakina denez, gaur egungo herri guziek ez daukate dagokien estaturik; Hego Amerikan edo Afrikan dauden estatuak ez dute zerikusi handirik hango etniekin, eta estatu sasi multinazional gehiegi badago . . . non-nahi, nabarmen da nazio-estatuaren formula "idealetik" oso urrun gaudela, eta herri askok ezin dezakeela estatu propiorik izan, nahiz haien gizartea aurreindustrial delako, nahiz menderakuntza jasaten ari direlako. Halere, ideologia askotan, eta gurean oso onartuak diren ideologietan, nazio bakoitzak bere estatua egiteko duen tendentzia eta eskubidea nazio teoriaren oinarri politikotzat jotzen da: omen, herri ezberdinen bilakabidearen puntu gailena da nazio-estatuaren eratzea. Puntu gailen horrek aurpegi ezberdinak har ditzake, noski: estatu handi eta "nazioanizdunen" ideologoentzat, beren estatua egiteko gauza ez diren herri xume edo aurreindustrialen suntsiketa ("integrazioa") urrats positibo, beharrezko eta aurrerakoia izaten da; alderantziz, herri xume edo zapaldu horietan ideologia nazionalista agertzen denean, herri bakoitzak, berdin handiak edo ttipiak, bere estatua eratzeko duen eskubidea nazioaren teoriaren ardatza bihurtzen du.

Zapaltzaileen nazionalismoa eta menperatuen nazionalismoa ez dira berdinak, baina biek onartzen dute aipatu puntuaren zuzentasuna: alegia, estatu propioaren egitea dela bilakabide nazionalaren puntu gailena. Eta hemen datza, nire iduriko, nazionalismo guztien potentzial zanpakor eta suntsikorra.

Estatuaren fetixismoak gaineratzen dizkio nazionalismoari estatuaren jite zanpakorrak. Teoria guzti horiek estatua gizartea eratzeko era perfektuena dela kontsideratzen dute; batez ere, botere politikoaren kontrola lortzeko eta mantentzeko borrokatzen duten taldeek goستن dituzte estatuaren bertuteak. Baina estatua ez da soilki gizartearen kudeatzeko molde bat, baizik eta herriaren gehiengoaren gainean indar errepresiboa mantentzeko egitura egokiena; horregatik, estatuaren beharkizuna defendatzen dutenak herriaren

gaineko kontrola ukan behar dutela sinesten dutenak izaten dira, eta, haien izenekin aipatzeko, izena dute burgesia Mendebalean eta alderdi bakarreko burokrazia Ekialdean.

Ezin genezake hemen estatuaren kritika osoa egin. Batez ere nazioarekiko dituen harremanak ikertuko ditugu, baina harreman horiek ulertezinak dira estatuaren jite zapalkor eta alienatzaile orokorra azpimarratzen ez bada. Nazio-estatu abstraktuz kontsidera daiteke, baina edozein nazio-estatu konkretu izango da gutxiengo menperatzaile baten eskuetan. Eta estatuaren jite autoritario horrek kutsatuko du, hala beharrez, nazio osoa. Estatuaren jite zapalkorra ez dagokio soilki kontrol sozial eta produktiboari: nazioaren oinarri kulturala den herri bizitza ere aldarazten du. Historiak eta gaurko egoerak erakasten digutenez, nazio-estatu bat existitzen denean, nazionalismoak bi plegu hartzen ditu:

a/ Barnean, mugen barnean dagoen gizartean, bereizgarri nazionalen ideologia bat agertzen da, partzial eta batukorra. Hau da, boterean dagoen taldeari interesatzen zaizkion kultura edo historianazionalarenpunduak ageriko direla kultura eta historia osoa bailira, talde horren interesen aurka edo at gertatzen diren beste berezitasun guztiak ahaztuak edo menperatuak izango direlarik. Oso nabarmena da egoera hori. Eskoletan ikasten diren gertakari ofizialak, propagandan erabiltzen diren herri jakinduriaren topikoak, folklore babestuen prostituzio ezberdinak, besteak beste, nazio iduri motz eta partzial baten parteak dira, egiazko herri aberastasunetik urrun eta, are gehiago, herriaren iduria gezur borobil bat bilakatzen dutela. Iduri ofizial eta gezurti horrek suposatzen du herri kulturaren atal askoren zokoratze eta zapalkuntza: hizkuntza ofizialak mintzatzeko berezitasun erregionalak erailtzen ditu, folklore ofizialak kondentzen ditu egiazko azalbide herrikoiak, eta abar. Eta hemen ez naiz estatu-nazioak zapaltzen dituen beste herri kulturak soilik aipatzen ari, ez: bere irudizko nazioaren oinarria egiten duen herriaz ere ari naiz mintzatzeko. Gurean, esate baterako, espainol estatuak euskal kulturaren aurka egin duena ezagutzen dugu; baina Castillaren kultura, folklore eta hizkuntza bera kontsideratzen baditugu, ongi ikusiko genuke zer noraino zapalkor eta suntsikor izan dela Espainia ofiziala kastillanoentzat. Hots, bere mugen barnean estatu-nazioak sortzen duen iduri nazionala zapalkorra gertatzen da nazioaren oinarri etnikoa den herri propioarentzat, eta kontradikzio horrek duen jatorria estatuaren jite klasista eta zapaltzailean datza.

b/Kanporantz, estatu-nazioa erasokor eta inperialista izaten ohi da. Estatuaren eginkizuna estatu bera kontrolatzen duen taldearen boterea azkartzea izaten baita, hauzoen kaltetan egiten da usu; hauzoen aurkako erabilitako kontzeptu ideologikoak, irain nazionalak eta abar, herriaren alienazioaren parte bat dira, botereak nahitara elikatuak. Gaur egunean, lanaren bereizketa internazionala dela medio, estatu guziek dute munduan zehar beren influentzia hedatzeko interesa, eta harrigarria izan zaigu estatu sozialistak ere gerla inperialistetan berrikitan ikustea; Kanboian den arrosak esplikatzen digu, partean bederen, Vietnamgo dibisioen erasoak, eta munduan zehar Sobiet Batasunak, Txinak eta Estatu Batuek daramaten influentzien borroka beste parte esplika diezaguke. Gaurko egoerak inposatzen duen produkzioaren mundializazioak estatuaren kanporantzgo jite erasokorrak larritzen ditu eta aitortu egin behar da itxaropen handiak eman zizkiguten estatu sozialistek hauzoen aurkako gerla nazionalak justifikatzeko kapitalistek erabilitako topiko nazionalista berdinak erabiltzen dituztela. Hitz batez, estatuarekin uztartzen den nazioa erasokor eta intsolidarioa dela hauzoentzat, nazionalismo zapaltzailearen bereizgarri ilunenak biltzen dituela.

Laburtzeko, esan dezadan estatuak ez duela, inondik ere, nazioaren forma helduena edo perfektuena suposatzen, bederen nazioaren oinarri herrikoari begiratzen badiogu. Alderantziz, estatuak berezitasun eta aberastasun herrikoi asko zapaltzen edo zokoratzen du, eta, bide batez, nortasun herrikoari gaineratzen dizkion jite txobinista eta erasokorraz endekatzen ditu herri bakoitzak izan behar dituen besteekiko elkartasuna eta maitasuna.

Errepika dezagun ezin daitekeela talde dominanterik gabeko estaturik burutu. Nazio-estatuari dagokionez, talde zapalkor horrek bi aurpegi historiko hartu ditu: hasteko, burgesiaren hedatzeak sortu zituen tankera modernoko nazioak, eta gero alderdi komunistek jabego pribatuari datxekion burgesia suntsitu zuten eskualdeetan, burokraziak eskuratu du herriaren gaineko kontrola. Azken finean, haien arteko diferentziak ukatu gaberik, eginkizun oso antzekoa izan dute: nazioaren heroi, mito eta ideologia alienagarriak biziak dira Mendebalean eta Ekialdean. XIX mendeko bukaeran iraultzaileek zuten internazionalismoa laster gertatu zen bazterturik, eta sozialismoaren aberrien handitasuna bihurtu zen sasi-internazionalismo berri baten ardatza. Gero, Sobiet Batasunak hautsitako esperantzak Txinan ezarriak izan ziren, alferrik berriz ere. Nazio-estatu bakoitzaren interesak edozein astakeriaren justifikatzailetzat onartzen dutenek ez digute oso jarrera erakargarria eskaintzen.

Halere, gaur egun bada diferentzia oso nabari bat nazionalismo burgesen eta nazionalismo sozialisten artean. Atzo, burgesia ezberdinek beren estatu propioak sortzen zituzten, edo sortzeko ahalegintzen ziren bederen: barnean gizartearen kontrola izateko eta kanporantz politika hedakorra posiblea egiteko, estatuaren aparatua, armada eta abar behar zituzten. Gaur Mendebaldeko ekonomian multinazionalen kontrola hautsiezina da, eta inongo burgesia nazional berriak ez du beste estatu berri klasiko bat sortzeko posibiliterik. Kapitalaren mundializazioa dela eta, estatuak duen eginkizun berria ez da burgesia nazionalaren tresna izatea, baizik eta multinazionalak behar dituzten azpiegitura eta errepresioa sostengatzeko tresna egokia izatea. Noski, oraindik dirau burgesia nazionalaren eta multinazionalen arteko kontradikzioak, baina ez dirudi multinazionalak galduko dutela. Gurean nabari nabaria da euskal burgesiak ezin dezakeela (eta ez duela nahi) estatu propioa sortu, eta aski argia da eskualdeen autonomia dela multinazionalak hobesten duten Espainia berriko egitura aproposa.

Alderantziz, lerrokatu gabe edo Sobiet Batasunaren babesgoan borrokatzen duten nazio askapenerako mugimenduek, horiek bai estatu berri eta aski independenteak sortu dituzte. Aipagarriak, esate baterako, Mozambike edo Ginea Bissauren esperientziak, produkzio eta kontsumo molde propioak sortu nahirik baitihardute, mundializaziotik at. Baina adibide hauek ez zaizkigu aplikagarriak edo orbangabekoak. Hasteko, oso zaila iduritzen zait Europan errepikatzea esperientzia horiek, eta, batez ere, galdera bat egin behar diogu gure buruari: talde harmatuek sortu estatu berriek ez dute burokraziaren diktadurara daraman bidea hartuko? Gizarte kontrol osoa eskuratzen duten minoria iraultzaileek ez dute beren antzeko taldeek jasandako endekatzea pairatuko?

Demagun, beno, demagun ez, egia da hau, egia guztiz borobila, ukaezina, nazionalismo burgesa ez zaigu aterabide bezala interesatzen. Euskal Herriak ez du inoiz euskal estatu burgesik ikusiko; gaurko egoeran ez dago Europan lekurik beste estatu burges klasiko batentzat, eta gure burgesia ez da gauza (indar ekonomikoz eta eragin sozialaz) holako gauza

inportantea sortzeko. Bego bere Gernikako Estatutuan eta UCDk eman diezaiola morrontza gorriberdezuriaren ministeritza: horrela denok kontent, eta posibilitate ukronikoaz ez dezagun denborarik gal. Beste alde batetik, gure ideologia nazionalistan dauden astakeria abertzalero anitz (arrazismo eta txuleria barne) euskal burgesiaren manipulazioek sortuak dira, eta argia da inoiz ezin genezakeela gure asmoak estatu burgesek sortutako txobinismoarekin konfonditu.

Dagokigun galdera, beste bat: posible al da nazionalismo proletario bat, beste modu batez esana, langileen nazionalismoa edo nazionalismo herrikoa? Zeren eta gure auzia ez baita boterearen hartzea; boterearen suntsitzea da gure arazoa, herriak berak bere etorkizuna eta bere bizitza eskura eta kudea ditzan. Arazoa horrela aurkeztuko nuke: sasi-sozialismoari datxekion nazionalismo bat badagoela nabaria da, baina sasi-sozialismo horrek botere errepresibo eta alienatzaile baten mantentzea suposatzen du; nazio-estatuari dagokionez, alderdi bakarreko burokraziak sortu nazionalismoa burgesena bezain alienatzaile eta zapaltzailea da, eta ez dabil langileriaren interesekin, langileriaren aurka baino. Klase eta botererik gabeko komunismoari dagokion nazionalismoa ba al da? Horra galdera. Estatu eta minoria zapaltzailerik gabeko gizartean, jabego pribaturik gabeko gizartean, nazionalismorik ikusiko da? (Badakit batek baino gehiagok esango digula euskal nazio burgesa ukronikoa balin bada, gizarte komunista hori lainoa baino lanbrotsuago dela; gero ikusiko ditugun arrazoiengatik, ez diogu kasurik egingo).

Langileek badituzte interes nazionalak, bai ala ez? Horra gakoa, eta erantzunak oso desberdinak izan dira: baietz, ezetz, ez baina bai, eta bai baina gero ez. Aukera ederra izan dugu teoriko eta politikoen arteko eztabaidak ikertzeko, eta usu iritzi aldakorak ikusi ditugu, kinka famatuarekin aldatzen zirenak. Gurean, eta ezker abertzale deitzen den mugimenduaren barnean, baietza izan dugu erantzuna. Baietza oso historiko eta oso pragmatiko bat, alegia, ETArek Bosgarren Biltzar Nagusiaren ondoan bilbatua. Hemen aski goiz nabaria izan zitzaigun gure burgesia ez zela gauza independentzia lortzeko; nabaria izan zitzaigun ere gaurko munduan borroka antiinperialistak zirela estatu berriak sortzeko prozesu bakarrek, eta langileen artean lortutako oinarri sozialak berak bultzatu gintuen gure burua abertzale eta proletario definitzeko.

Nazionalismo burgesetik askatzeko, gure burua garbi ateratzeko, distingobatzuegin ditugu. Berezitu ditugu "abertzaleak" eta "abertzaleroak", garden gardenak lehenak, sasikoak eta txobinistak bigarrenak; "abertzaletasun proletarioa" bertutez horniturik "nazionalismo burges" zikinetik aldendu dugu ere. Hauk guzti hauk, halere, deklarazioak dira, edo eraikuntza ideologikoak, esan nahi baita faltsuak. Duda gaberik, gaur egun dagoen abertzaletasunean nazionalismoaren puntu positiboak (gure buruaren jabe izan nahia, gure kultura propioaren defentsa, zapaltzaileen aurkako borrokatzeko beharra, besteak beste), puntu negatiboekin (txobinismoa, hauzoezin elkartasunaren falta, interklasismoa, e.a.) nahasten dira, proportzio ezberdinez indibiduo, talde eta garaien arabera, eta estatuaren alde jokatu ala ez horrek badu, nik uste, zerikusia puntu negatiboen garrantziarekin. Gaurko egoera konkretua baino gehiago, aztertzen ari garenak tendentziak dira, eta inori ez diogu ukatuko bertute guziaz hornituko abertzaletasuna asmatzeko eskubidea, baina eguneroko abertzaletasunean agertzen diren jarrera nazionalistak edozein ikerlek (ikuslek) aurkitzen ahal ditu.

Estatu sozialistaren eta komunismoaren arteko diferentziari itzul gaitezen. Eman dezagun, ba, eta hau gure praktika propioak, gure eguneroko bizitzak inposatzen digun ebidentzia da, gurean komunismoari dagokion abertzaletasuna badagoela, eta haren arabera langileen interesetan sartzen direla bai jabego pribatuaren suntsitzea, bai burokrazia eta estatuaren deuseztatzea, bai eta ere herri bezala berezitzen gaituen kultura gaurkotu eta bihurtu, sortuko dugun gizarte komunistaren kultura bihurtu dadin. Baina, zein ebidentziak inposatzen digu euskal estatutik pasatzea? Estatu horren beharra (nahiz behin-behineko estatua izan) onartuz, ez al gara kontzepzio zaharkitu eta mekanizisten presonerrak?

Nik ez dut estatu proletarioa posiblea denik uste. Edozein estatu zapaltzaile gertatzen da, herriaren aurkako tresna, minorien morroi. Estatuak ezin ditzake ezproduktio harreman hierarkikoak hautsi, ez eta produktioaren zentralizaketa gainditu. Harreman hierarkikoek jarraituko duteno, minoria batek inposatuko du nazioaren iduri alienatzaile eta zapaltzailea eta herri kultura endekatuko da. Produktioaren zentralizapenak jarraituko deno, batez ere gure garai honetan, herri ttipiei dagozkien produktio-molde berezituak gero eta zokoratuago gertatuko dira, eta nazioarteko lanaren banaketa gaur bezala jarraitzekotan herri ttipientzat ez da munduan lekurik izango.

Desarrollismoari eta burokraziari loturik dagoen edozein estatu, kaltegarri izango zaio herri kulturari, herri askatasunari, nahiz eta baliagarri izan minoriak inposatu nahi duen nazio motz eta faltsuari.

Produktio-molde zentralizatuak aipatu ditut, eta berriz itzuliko naiz. Ez da, azken funtsean, herri kultura bereziturik izango herri bakoitzaren ekosistemari dagozkien produktio-molde berezituak existitzen ez badira. Hona hemen egia bat. Eta gaurko munduan inposatzen ari den produktio sistemak ez du herrialdeetako ekosistemen errespetuarekin zer ikusi handirik; merkatu urrunetan gertatzen denak inposatzen du produktio-moldea, eta estereotipazio gutziz irrazional bat dugu legea: horra hor bigarren egia.

Ez da harrizkoa honenbeste herri ttipi, honenbeste hizkuntza, honenbeste aberastasun kultural galtzen bada. Gure mendea izan da genozidioen garaia, eta etnozidioen sasoia izango da. Laster, hizkuntza desberdinek doi-doi islatuko dute biziera bakar bat, kosmopolita eta sustraigabetua.

Onartzen badugu produktio-bideen "aurrerapena" daraman bidetik aitzinatuko dela, onar beharko genuke kosmopolitismo horrek irabaziko duela, eta irentsi, hala beharrez, Euskal Herrian gertatuko dena hau izango dela: gure kulturaren ardatza izan diren biziera eta produktio molde gehienak galduko dira, eta monopolioen erresuman emango diguten eginkizuna erdi euskaraz erdi erdaraz kudeatuko dugula, hizkuntza ere *ersatz* bat izango delarik. (Gauza bera gerta dakiguke batasun ekonomiko sozialista baten barnean, gaur aski berdinak gertatzen dira bi sistemak, baina ez du ematen Ekialdera pasatzeko parada handia dugunik).

Ezin daiteke teknika neutrala denik pentsa. Ezin daiteke energia-irensle eta mundiala den produktio-molde hau herri ttipi baten interesen arabera kudea daitekeela amestu. Kontrol gabeko garapenak berak herri kulturen desagerpena inposatzen du, eta eskema honetatik aterako ez den jokabideak hondamendira eramango gaitu, nahitaez.

Horregatik, komunismoa aipatzerakoan ezin genezake soilki jabego pribaturik gabeko gizarte bat izendatu. Gizarte horretan produkzio harremanak ez direla hierarkikoak izango eta botere politikorik ez dela izango azpimarratu beharko da. Eta konkretua izan: hautatutako produkzio-bidea ekologikoa izango dela, teknika izango dela naturaren eta herrialde bakoitzean bizi diren jendeen arteko orekaren zerbitzuan, teknika bera goxoa izango dela, talde ttipien beregaintasuna izango dela helburu nagusia. Energia xahutzearen tasak apaldu eta ekosistema begiratu; produkzio batasunak ttipiagoak izan denen artean ulerkor eta kudeagarriak bilaka daitezten, barne harremanak berdintzaileak eta gardenak bihurturik. Horrela, eta bakarrik horrela, herri kultura eta lekuan lekuko hizkuntza baliagarriak gertatuko dira bizitzaren maila guztietan.

Hori guzti hori helburu hurbilen artean ipini beharko genuke, zeren eta hori baita esparru posible bakarra herri bakoitzaren kultura bizi eta aberastu dadin. Aktualitatean dena ez da estatu nazionala, baizik eta komunismoa. Komunismoa ala basakeria. Noski, honek ez du ukatzen kultura unibertsalaren izatea, ez eta hauzokein edo mundu guztiarekin harremanak izatea. Baina bizitzaren ardatza autosufizientziatik pasatuko da, kosmopolitismoaren kontrolpean gertatu gaberik. Hori da, ba, itzuliz-itzuli, nazio eta estatu gabeko jendeen batasun naturaletara itzul daitekeen iraultza bakarra. Eta natura eta jendeak dominatuko dituen multinazionalen estatu mundialaren lokamutsetik urrunena gertatuko dena. Herri kultura bizi dadin eta herria bera libre eta zoriontsu bizi dadin (gora utopia, berak biziarazten baikaitu!), batasun ekologikoen federazioa izan liteke formula bakarra.

Bukatzeko, artikuluko honen tesia horrela labur daiteke: nazioaren oinarria herri kultura izanik, nazionalismoaren iduri dominantea talde zapaltzaileek eman ohi dute. Talde dominanteen kontrolpean gertatuko den edozein gizarte egitura herri kulturaren kaltetan erabilia izango da: eta estatua da, egitura horien artean, kaltegarriena eta zanpatzailearena. Estatuak ez du nazioaren funtsean den herri kultura aberastuko, endekatuko baino. Horregatik, herriari bere duintasuna eta bere kultura propioaren jabetza emango dizkion egitura posible bakarra komunismoa da. Baina komunismora heltzeko ezin daiteke estatua erabili: estatuak beti komunismoaren aurka joko du, inoiz ez alde. Abertzaleen borroka, herrikoia izatekotan, estatuaren aurka izan behar da, edozein estaturen aurka. Burgesia dugu gaur etsai hurbilena, zuzenena, baina sozialismo burokratikoaren borroka ereduak kaltegarritzat jo behar ditugu.

Iraultza komunistaren gaurkotasuna onartzerakoan, ekologiak hartu lekua ezin dezakegu ahanzi. Produkzio-molde kosmopolitek herri kulturen desagertzea dakarkigute; produkzio-molde berriak, lekukoak, gaurkotuak, ekologikoak behar ditugu gure kultura eguneroko kultura izan dadin.

Herri bezala libre izateko, euskaldun bezala gu izateko, helburu hauetara daraman bidea asmatu egin behar dugu: inongo liburu sakratuan ez dugu erantzunik aurkituko.